

Bilboko Euskararen Aholku Batzordea

memoria (2019-2023)



Bilboko Euskararen Aholku Batzordea

memoria (2019-2023)



2024ko apirila

0

Aurkibidea

1. Sarrera.....	4
2. Euskararen Aholku Batzordeko kideak.....	6
3. Gauzatutako jarduera nagusiak (2019-2023).....	8
3.1. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana-ESEP (2018-2022).....	8
3.1.1. Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren deskribapena	
3.1.2. Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren ebaluazioa	
3.2. Bilboko Udaleko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2018-2022).....	10
3.2.1. Erabilera Planaren nondik norakoak	
3.2.2. Erabilera Planaren ebaluazioa	
3.3. Bilboko Udaleko Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.....	15
3.4. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa.....	17
3.5. Bilbon euskara biziberritzeko bi ikerketa-egitasmo: guraso gazteak eta <i>Euskara kirolkide</i>	19
3.6. Ibilaldia 2022.....	20
3.7. Euskaraldia 2022.....	22
4. Euskararen Aholku Batzordea agintaldi berrian (2023-2027).....	23

1

Sarrera

Bilboko Euskararen Aholku Batzordea 2016ko otsailaren 3an abiatu zen, 2015-2019 agintaldian, hain zuzen ere. Bere egitekoari dagokionez, hauek ziren bere helburu nagusiak:

- Bilbon euskararen ezagupena eta erabilera handitzea.
- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea.
- Bilbon euskararen normalizazioaren alde lan egiten dutenentzat topaketarako, partaidetzarako eta eztabaidarako foroa izatea.

Aholku Batzorde hau tresna eraginkorra izateko helburuz jarri zen abian. Bilbon, lehena-gotik ere bazebiltzan euskararen normalizazioaren alde lanean, udalerrian zein Udalean bertan. Baina Aholku Batzordearen eraketarekin harago joatea pentsatu zen: Bilboko Udalaren eta euskararen normalizazioan alde lan egiten dutenen lankidetzat eratzea, baita gizartean eragina duten entitateekin ere.

Aholku Batzordearen lanean sakontzeko eta hainbat sektore dinamizatzeko, 2016ko ekainetik 2017ko ekainera arte, hiru azpibatzeren jarduna antolatu zen:

- Hedabideak
- Euskaltegiak
- Euskara-elkarteak

Aholku Batzordeak hainbat gai aztertu eta landu zituen hasierako agintaldian (2015-2019), aldi horretako memorian jaso zituenak. Bertan, Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak gauzatu zituen **jarduera nagusien** berri eman zuen. Aipagarriak dira honako hauek:

- Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) (2014-2017) indarraldia amaituta, 2022ra arte luzatzea erabaki zen, Euskara eta Hezkuntza Sailak proposatuta eta Gobernu Batzordeak onartuta.
- Bilboko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren 2013-2017 epeari zegokion ebaluazioa: emaitzen aurkezpena, eta 2018-2022 plangintzaldiari zegokion plana.
- Bilboko gazteen euskararen erabilerrari buruzko ikerketa (Eusko Ikaskuntza): Bilboko gazteen euskararekiko esperientziak ezagutzea eta euskararen erabilera sustatzeko gakoak identifikatzea izan zen ikerketaren helburua.
- “Hirian ere... lehenengo berba euskaraz” ekimena: ekimen horren bitartez, euskararen erakargarritasuna azpimarratu nahi izan zen eta modu bizian proiektatu, hizkuntzara hurbiltzen ziren guztiei harrera egiteko leku nahikoa baduelako euskarak.
- Biribilko: Bilboko merkataritzan euskararen normalizazioa sustatzeko programaren aurkezpena, bere bitartez gauzatutako ekimenen aipamenarekin.

Agintaldia bukatuta, Aholku Batzordea berriztu eta 2019-2023 agintaldirako batzordekideak izendatu ziren.

2

Euskararen Aholku Batzordeko kideak (2019-2023)

Batzorde honetan, Bilboko Udalarekin batera, herriko politika, kultura eta gizarte arloko zenbait eragilek hartu zuten parte. 2019ko ekainaren 15ean eman zitzaion hasiera agintaldi berriari. Honako kide hauek osatu zuten Aholku Batzordea:

	ORDEZKARIA
Alkatea-batzordeburua	Juan Mari ABURTO RIKE
Euskara eta Hezkuntza Saileko zinegotzia-batzordeburuordea	Koldobika NARBAIZA OLASKOAGA
Kultura eta Gobernantza Saileko zinegotzia	Gonzalo OLABARRIA VILLOTA
Ekonomia eta Ogasun Saileko zinegotzia	Marta AJURIA ARRIBAS
Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegu Saileko zinegotzia	Xabier OTXANDIANO MARTÍNEZ
EAJ-PNV Udal Taldea	Alaitz ORIBE TORRONTEGI
PSOE-PSE Udal Taldea	Nora ABETE GARCÍA
EH-Bildu Udal Taldea	Asier GONZALEZ SOREASU
Elkarrekin Podemos Udal Taldea	Ana VIÑALS BLANCO
Partido Popular Udal Taldea	Txus SANZ SALAMANCA
Euskara eta Hezkuntzako zuzendaria	Jone UNZUETA CRESPO
Euskarako zuzendariordea	Mari Jose ARRIETA SAGARNA
Bizkaiko Foru Aldundia. Euskarako Zuzendaritza	Xabier ARAUZO URIARTE

	ORDEZKARIA
Euskaltzaindia	Andres URRUTIA BADIOLA
Labayru Fundazioa	Jon Simon GARTZIA LEGARRETA
Bilboko euskaltegiak	Andres URRUTIA BADIOLA
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila	Jokin GOROZIKA BIDAURRATZAGA
Bilbao Dendak elkarteak	Jon MAGUREGI OLABARRIA
Athletic Club	Jon Simon GARTZIA LEGARRETA
Uztarri Kultur Taldea	Olatz ELGEA
Zenbat Gara elkarteak	Iker GOÑI ANTUÑANO
Idazlea eta kultura sustatzailea	Lutxo EGIA DEL RIO
Kazetaria	Goizalde LANDABASO ETCHEVERRY
Idazlea	Miren Agur MEABE PLAZA

Agintaldian zehar aldaketak egin ziren zenbait kasutan. Adibidez, Euskara eta Hezkuntzako zuzendariak, Jone Unzuetak, erretiroa hartu eta Lierni Lizaso izendatu zuten Euskara eta Hezkuntza Saileko zuzendari. Horrez gain, Athletic Club taldeko Iker Goñik batzordea utzi, eta haren lekua Igor Arenazak eta Nerea Ortiz de Pinedok bete zuten; Euskaltzaindiako Andres Urrutiaren ordez, Adolfo Arejita izendatu zuten batzordekide; eta Alderdi Popularreko Jesus Sanzen ordez, Mikel Bilbao sartu zen Batzordean.



3

Gauzatutako jarduera nagusiak (2019-2023)

2019-2023 agintaldian Aholku Batzordean landutako gaiak askotarikoak izan ziren. Horietako batzuek Bilboko Udalak gauzatutakoak; beste batzuk, berriz, beste erakunde batzuetatik bideratutakoak.

Agintaldi berria abian jarri zenetik 2019. urtean, bost bilera egin ditu Euskararen Aholku Batzordeak. Honako hauek dira denbora tarte horretan aztertu diren gaiak:

3.1

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana- ESEP (2018-2022)

Eusko Jaurlaritzak 2013an diseinatu zuen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP), euskararen erabilera indartzeko helburuz. Bilboko Udaleko Gobernu Batzordeak Bilboko Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2014-2017) onartu zuen 2014ko otsailaren 12an. Plan horren indarraldia amaituta, Euskara eta Hezkuntza Sailak epe hori luzatzeko komenigarritasuna ikusi zuen.

Hala bada, kontuan izanda ESEPen helburu estrategikoez indarrean jarraitzen zutela eta hainbat programa eta ekimen abian zeudela helburu guztietan, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren indarraldia 2022ra luzatzea proposatu zion Gobernu Batzordeari, eta horrek onartu egin zuen. Ondoren, 2023ko otsailaren 1ean Bilboko Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) bigarren luzapena onartu zen, Plan berria onartzen den egunera arte.

3.1.1. Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren deskribapena¹

Bilboko Udaleko Euskarako Zuzendariordetzaren helburua hirian euskararen normalizazioa bultzatzea da, Bilbo gero eta elebidunagoa izan dadin; eta horretarako, hainbat programa, ekintza eta jarduera egiten ditu, helburu estrategikoen arabera eta esparruka antolatuta.

Erabilera Sustatzeko Ekintza Planaren ardatz nagusiak Euskararen jabeakuntza, erabilera eta elikadura dira. Honako hauek dira ardatz horien baitan egindako jardueretako batzuk:

- **Euskararen jabeakuntza** edo **eskuratze-prozesuan**, *Zinema euskaraz*, *Mundu bat bertso* eta *Euskal jolasak eta jokoak* programa, besteak beste.
- **Euskararen erabilera**n, *Biribilko* merkataritzan euskara sustatzeko programa; *Ikusi eta ikasi* eta *Darabilbo* programak, adibidez.
- **Euskararen elikadura**n, *Loraldia festibala*, *Klasikoen irakurraldi jarraitua* eta *Mikoleta ipuin-lehiaketa*, esaterako.



Helburu horiek lortzen laguntzeko, badira lagungarri diren bi zehar-lerro: **Euskararen aldeko motibazioa** eta **Euskararen zabalkundea**. Horietan eragiteko ere ekintza zehatzak egin ziren, besteak beste: Bilboko euskaltegietan matrikulatzeko kanpaina, *Eman giltza* haur jaioberrien gurasoei zuzendutako sentsibilizazio kanpaina, *Euskaraldia* euskararen aldeko ariketa soziala eta Azkue Fundazioarekin hitzarmena, euskararen erabilera mundu digitalean sustatzeko jarduerak antolatu ditzan.

¹ Bilboko Euskararen Aholku Batzordearen memoria (2016-2020) dokumentuan aipatuta.

3.1.2. Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren ebaluazioa

Ekintza plan honen baitan gauzatutako neurri eta ekintzen bidez lortutako eragina baloratzeko momentua heldu zen 2023an, hau da, egindako ibilbidea kontuan hartu, emandako pausoak aztertu eta hutsuneak eta hobetu beharrekoak identifikatzeko momentua.

Horretarako, Plan honen bidez hirian egiten diren ekimenek lortzen duten eraginari buruzko diagnosia egitea zegokion Euskarako Zuzendaritzari ikuspegi kuantitatibo eta kualitatiboa erabiliz, eta datuen irakurketatik abiatuta. Plana diseinatu zenean, helburuen progresioa islatuko zuten adierazleak ezarri zituen Euskarako Zuzendaritzak, helburu estrategiko bakoitzean eta zehar-lerroetan. Adierazle horiek erreferentziatzeko datuak ziren planak bulzatutako programak eta ekintzak nahiz erabilitako baliabideak aztertzeko, hau da, planaren betetze-maila neurtzeko. Izan ere, 2024an etorkizunari begirako plana diseinatzerako orduan, helburuak ondo identifikatzeko ezinbestekoa izango da egindakoa arakatzea.

Eginkizun horretan, esan bezala, kontuan hartu nahi izan dira bai datu kuantitatiboak, baita informazio kualitatiboa ere; alegia, zenbakiak ematen duten datu hutsa euskalgintzan diharduten hainbat pertsonen hausnarketekin eta iritziekin osatu, balorazio kontrastatua lortzeko. Hortik lortuko den diagnostikoa 2024an ezagutuko da.

3.2

Bilboko Udaleko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2018-2022)

3.2.1. Erabilera Planaren nondik norakoak²

Bilboko Udalaren Erabilera Plana estrategikoa eta zeharkakoa da. Bilbotarren zerbitzura dagoen administrazio publikoa izanik, euskararen normalizazioan aurrerapausoak emateko konpromisoa dauka Udalak, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eta erakundearen funtzionamenduan euskararen erabilera indartzeko.

² Bilboko Euskararen Aholku Batzordearen memoria (2016-2020) dokumentuan aipatuta.

Euskararen normalizazioari buruzko araudia betez, Udalak VI. plangintzaldiari (2018-2022) zegokion Erabilera Plana onartu zuen. Planaren eragin-eremuan zeuden Udaleko sail guztiak eta, beraz, sail guztiei eragiten zien.

Erabilera Planaren xedea eta helburu nagusiak aintzat hartuta, honako **helburuak** zehaztu ziren 2018-2022 plangintzaldirako:

1. Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea, eremu hauetan:

- Herritarrekiko harremanak
- Erakundearen irudia

2. Euskara lan-hizkuntza izatea, eremu hauetan:

- Langileen kudeaketa
- Barne-harremanak
- Kudeaketa-sistema
- Kanpo-harremanak

Bilboko Udalak argi izan zuen hasieratik, plan honen bidez euskara eguneroko funtzionamenduan modu eraginkorrean txertatzeko, ezinbestekoa zela Erabilera Plana bera kudeatzeko antolakuntza-egitura egokiak izatea, planak erakundeari bere osotasunean eragin ziezaion eta Udaleko sailetan hezurmamitu zedin. Beraz, Udalaren estruktura osoa lan-ataletan banatu eta antolakuntza egiturak sortu eta bakoitzari egiteko batzuk esleitu zitzaizkion.

Honako hauek izan ziren onartu ziren **egiturak**:

<p>Normalizazioaren Jarraipenerako Batzorde Gidaria</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Alkatetza • Kalitate eta Ebaluazio Kabinetea • Giza Baliabideen Zuzendaritza • Euskara eta Hezkuntza Saila
<p>Euskararen Normalkuntza Batzordea (ENBA)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Giza Baliabideen Zuzendaritza • Euskara eta Hezkuntza Saila • Sindikatuak
<p>Euskara Taldeak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zuzendaritzetako arduradunak • Euskara eta Hezkuntza Zuzendaritza • Euskara koordinatzailea

Lan egiteko metodologiari dagokionez, pausoz pauso joan dira urratsak ematen: lehenik eta behin, Erabilera Planaren berri eman zitzaizen Bilboko Udaleko eragile guztiei, bai langile zein erakundearen ordezkari edo udal-arduradunei. Ondoren, Batzorde Gidaria eratu, Euskara-koordinatzaileak izendatu eta Euskara-taldeak osatu ziren, hurrenez hurren. Euskara-talde bakoitzean erabilera areagotzeko neurriak erabaki ziren eta euren kudeaketa planetan jaso ziren.

Erabilera Planaren VI. plangintzaldi honetan, Bilboko Udalaren Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak landu eta onartu ziren.

3.2.2. Erabilera Planaren ebaluazioa

Euskara talde bakoitzean erabakitako neurrien jarraipena taldeko Euskara koordinatzailearen eta Euskara teknikariaren artean egin ohi zen.

Bestalde, Erabilera Planaren VI. plangintzaldiko amaierako ebaluazioari dagokionez, lan osatuagoa gauzatu zuen Bilboko Udalak 2023an. Euskarak zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza gisa duen presentzia, erabilera eta kudeaketa ebaluatu zen Erreferentzia Marko Estandarraren (EME) **bi ardatz** eta sei elementuetan oinarrituta:

ardatzak	Zerbitzu-hizkuntza	<ul style="list-style-type: none">• Erakundearen irudia• Herritarrekiko harremanak
	Lan-hizkuntza	<ul style="list-style-type: none">• Barne-komunikazioa eta lan-tresnak• Pertsonen kudeaketa• Euskara-koordinatzaileak izendatzea.• Kanpo-harremanak• Kudeaketa-sistema

Honako datu eta informazio hauek jaso ziren:

Datu aitortuak galdetegi bidez

- Saitetako langileek ahozko nahiz idatzizko hizkuntzen erabileraren inguruan aitortu zituzten datuak.
- Euskara-koordinatzaileek aitortu zituzten datuak hizkuntzen erabilerari eta kudeaketari buruz.
- Ordezkarri politiko eta udal arduradunen datuak, hizkuntzen kudeaketari buruzkoak.

Behaketa bidezko datuak

Modu osagarrian, herritarrekiko harremanei zegokienez, herritarrekiko idatzizko harremanak eta harrera (aurrez aurre zein telefonoz) zein hizkuntzatan egiten diren neurtu nahi zen behaketa bidez. Datu hauek jaso ziren:

- Aurrez aurreko eta telefono bidezko "lehen berbaren" eta ondorengo elkarrizketaren hizkuntzari buruzko datua.
- Euskaraz jasotako mezu elektronikoei euskaraz erantzundako mezuen datua, herritarrek euskaraz idatzitako mezu elektronikoei eta egindako kontsultei zein hizkuntzatan erantzun zaien neurtzeko.

Galdetegi bereiztuak sortu ziren udal ordezkarientsat, langileentsat eta euskara-koordinatzaileentsat:

	Pertsona kopurua	Lagina galdetegirako
Udal ordezkariak	54	guztiak
Langileak	2.500	1.449
Euskara-koordinatzaileak	45	guztiak

Behaketa zuzenari dagokionez, batetik, udaleko arreta-leku eta arreta-telefonoetako hasierako hizkuntza erabileraren neurketa errealak egin ziren; eta, bestetik, udal bulegoetako helbide elektronikoro korretara eta Bilboko Udalaren webgunearen bitartez herritarrek euskaraz idatzitako mezu elektronikoei eta egindako kontsultei zein hizkuntzatan erantzuten zaien neurtu zen.

Bukatzeko, egindako galdetegi bidezko datu bilketen eta behaketa bidezko neurketen emaitza guztiak txosten batean jaso ziren, hurrengo planaren diseinuan oinarri gisa erabiltzeko.

3.3

Bilboko Udaleko Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak

Bilboko Udalak Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak onartuko zituen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren 2018-2022 plangintzaldian. Izan ere, hizkuntza-irizpideak bitarteko guztiz garrantzitsu dira langile eta agintari guztientzat eta ezinbesteko arau eta gida hizkuntza ofizialak kasuan-kasuan zelan erabili jakiteko.



Hiru helburu nagusi ditu hizkuntza ofizialen erabilerarako araudiak:

- 1.** Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta berdintasuna lortzea herritar horiek Bilboko Udaleko sailekin edo Bilboko udal erakundeekin harremanetan jartzen direnean.
- 2.** Euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea Bilboko Udaleko sailetan eta udal erakundeetan, euskara ere zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izan dadin.
- 3.** Bilboko Udalaren eta bere udal-erakundeen jarduera-eremu guztietan hizkuntza ofizialen erabilera arautzea, hizkuntza-irizpideak udal-funtzionamenduan eta erakundearen kudeaketa-sisteman txertatzeko.

Irizpide horiek Bilboko Udaleko sail guztietan eta Bilboko udal erakundeetan aplikatzeko dira.

Dokumentuak hiru atal ditu:

1. Irizpide orokorrak

- a. Ahozko komunikazio-harremanak
- b. Idatzizko komunikazio-harremanak
- c. Testu elebidunak edo eleaniztunak idazteko irizpideak

2. Hizkuntza ofizialak itzultzeko irizpideak

3. Jardun-eremuetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak

Hamahiru jardun-eremu identifikatu ziren:

- a. Irudi korporatiboa
- b. Izendapen ofizialak
- c. Hizkuntza-paisaia
- d. Sarrera-eta irteera-erregistroa
- e. Tresna eta aplikazio informatikoak
- f. Ingurune digitala
- g. Argitalpenak
- h. Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak
- i. Ekitaldi eta ekintza publikoak
- j. Bilerak
- k. Langileen etengabeko prestakuntza
- l. Dirulaguntzak
- m. Kontratazio administratiboa

Dokumentua eskuragarri dago bilbaeuskaraz.bilbao.eus web gunean.

3.4

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa

Soziolinguistika Klusterrak egin ohi du hizkuntzen erabilerari buruzko kale-neurketa Euskal Herri mailan. Lehen edizioa 1989an egin zuten eta azkena 2021ean. Ikerketa honen interesa aintzat hartuta, edizio bakoitzean, Bilboko Udalak hiriko erabilerari buruzko ikerketa egin dezan eskatzen dio Klusterrari, eta honek, neurketaren emaitza txosten batean aurkezten du.

Aholku Batzordean aurkezteko gai interesgarritzat jo zuen Udalak. Horregatik, 2021ean Bilbon eginiko neurketak emandako datuen berri azaltzeko gonbidapena egin zion Soziolinguistika Klusterrari. Aholku Batzordearen bilerara Soziolinguistika Klusterreko Imanol Larrea eta Olatz Altuna etorri ziren.

Bilbon egindako neurketaren ezaugarriak zein izan ziren adierazi zuten:

- 8 barrutitan 39 ibilbide egin ziren.
- Asteazken arratsaldeetan eta larunbat goiz eta arratsaldeetan egin ziren; guztira, 234 ordu. 19.000 elkarrizketa baino gehiago batu ziren Bilbon, eta 51.000 solaskide.

Bilbon 2021ean eginiko ikerketatik honako datu hauek atera zituzten:

- Bilboko kaleetan, **100 lagunetik 3-4 euskaraz** ari ziren (%3,5). Gehiengoak gaztelaniazko elkarrizketetan parte hartu du (%91,8). Frantsesezko elkarrizketetako solaskideak % 0,3 eta beste hizkuntzetan ari zirenak % 4,4 osatu dute.
- **2016tik hona puntu bat egin du gora** erabilerak Bilbon.
- Bilbon **% 29koa da hiztun euskaldunen kopurua**. Bigarren gune soziolinguistikokoan dago (%20-%30).

- 8 barrutiak kontuan hartuta, euskara gehien Abandon, Begoñan eta Ibaiondon entzuten da. Jarraian datoz Deustuko, Uribarriko, Basurtu-Zorrotzako eta Otxarkoaga-Txurdinagako euskararen erabilerak. Azkenik, Errekaldeko kaleetan entzun da euskara gutxien. Azpimarratzekoak dira Errekalderen, Ibaiondoren eta Basurtu-Zorrotzaren kasuak, barruti horietan euskara, gaztelania eta frantsesa ez diren beste hizkuntzen kale-erabilerak euskararena gainditzen dutelako.
- Duela bost urteko datuekin konparatuta, **barruti gehienetan egonkor dago euskararen kale-erabilera**. Gora egin du, ordea, Begoñako, Abandoko eta Basurtu-Zorrotzako kaleetan.
- Generoaren aldagaia aztertuta, **emakumezkoek gizonezkoek baino euskara gehiago** egiten dute.
- Bilbon, **haurrek hitz egiten dute gehien euskaraz**, eta gutxien adinekoek. Helduen erabilera, ostera, gazteenaren gainetik dago. Gazteen mundua gehiago hurbiltzen da helduenetara, eta helduen mundu hori nagusiki erdalduna da. Helduen mundurako jauzia egitean, euskara erabiltzeko aukerak ireki behar zaizkie gazteei. **Eskola bitartez euskaldundu diren haurrek eta gazteek euskara erabiltzeko gune erosoak aurkitu ezean, ez dute erabiltzeko aukerarik izango.**
- Pertsona **nagusiak euskaraz gehiago aritzen dira haurrak hurbil daudenean**, eurak bakarrik daudenean baino.
- Adin berekoen elkarrizketetan, **harreman horizontaletan, erabilerak behera egin du**.
- Azken bost urteetan **erabilerak talde hauetan egin du gora**: haurrak haurrekin daudenean eta haurrak helduekin daudenean.

Euskararen ezagutzan eta erabileran bilakaera handia izan da Bilbon azken 40 urteotan, Erabilera areagotu egin da, baina ez gurako genukeen beste. Datuok hobetzeko helburuz, aurrerantzean ere, Bilboko Udalak euskararen erabilera normalizatzeko eta sustatzeko hainbat ekintza burutzen jarraitzeko asmoa du, bilbotarren hizkuntza-ohituretan eragina duten programak antolatuz.

3.5

Bilbon euskara biziberritzeko bi ikerketa-egitasmo: guraso gazteak eta *Euskara kirolkide*

Bilboko Udalak bi ikerketa-egitasmo adostu zituen Soziolinguistika Klusterrarekin. Kirol eremukoa Bilbao Kirolak udal erakundeak hartu zuen bere gain, eta gurasoen eremukoa, berriz, Euskara eta Hezkuntza Sailak. Imanol Larreak egin zuen Bilbon euskara biziberritzeko egingo diren bi ikerketa-egitasmo horien aurkezpena.

2021. urtean aurkeztu zen kale-neurketaren emaitzetan argi ikusi zen Bilbon egiteko asko zegoela, baina, euskararen erabilerari begira, potentzialitate handiko bi eremu zeudela ohartuta, haiei lehentasuna ematea proposatu zuten: **gazteen kirola** bata eta **guraso gazteak** bestea. Euskara eta Hezkuntza Sailak egoki ikusi zuen ikerketa-eremu horietan lan egitea.

■ *Euskara kirolkide* proiektua

Egitasmoa 2020tik dago martxan. 2016an abian jarri zen “Dereduko kirola” ikerketa-ekintza proiektuaren jarraipena da. Eskolatik kanpo euskaraz funtziona dezaketen esparruak, babesguneak, sortzea bultzatu nahi da proiektuarekin. Proiektuaren garapenean hiru fase bereizten direla azaldu zuen Larreak aurkezpenean.

- Lehenengo fasean, kirola, oro har, eta, bereziki, klubaren egitura babesgune gisa izendatzeko oinarritzko elementuak identifikatu ziren.
- Bigarren fasean, lanketa teorikoan identifikatutako elementuak kontrastatzeari ekin zitzaion.
- 2023. urtean, hirugarren faseari ekin zitzaion. Fase horretan, Bilboko bi kirol klubetan hizkuntzari lotutako prozesu kontziente bat martxan jartzea izan zen helburua.

■ **Guraso gazteak eta euskara** izeneko proiektua

Haur txikiak dituzten guraso gazteen hizkuntza praktikak, iritziak, bizipenak eta harreman-sareak ezagutzea eta euskararen erabilera areagotzeko aukerak identifikatzea da proiektuaren helburua. Proiektu honetarako guraso berriak hartu ziren kontuan, haur txikiak zituztenak. Bilboko bi barrutitako gurasoekin bideratuko zen ikerketa, hainbat irizpide kontuan izanda:

- Interes soziolinguistikoa zuten eremuak.
- Guraso gazte asko biltzen zituzten eremuak.
- Kale-erabilera datuei erreparatuta bilakaera positiboa edota negatiboa izan zuten eremuak.

Proiektuan lau fase aurreikusi ziren: behaketa, banakako elkarrizketak, talde-elkarrizketak eta dinamika-partehartzaileak.

3.6

Ibilaldia 2022

Bizkaiko ikastolen urteroko jaia, Ibilaldia, Bilbon ospatu zen 2022an. Euskararentzat gertakari garrantzitsua izan zen, zalantzarik gabe. Adin guztietako euskaltzaleak festa giroan batu zituen jaialdia izanik, Udalaren laguntza izan zuen.

Bilboko Aholku Batzordearen ustez, hirian horrelako ekimenak babestea oso interesgarria da; izan ere, hiriko kultur eskaintzaren eta euskara komunikazio-hizkuntza duten jardueren parte da, eta, beraz, euskararen erabilerari laguntzen dio, Bilboko Udalaren helburu estrategikoetako bati, hain zuzen ere.

Bilboko Abusu Ikastolari egokitu zitzaion ibilaldia antolatzea. Eta Bilboko Udaleko Aholku Batzordeak Abusu Ikastolako zuzendari Zunbeltz Fullaondo eta gerente Zalao Aldatz, eta Ibilaldia Elkarteko Garikoitz Meabe gonbidatu zituen, jaiaren aurkezpena egiteko.

Erroharrihar leloaren oinarrian zer dagoen azaldu zuten. Logoak **3 errotarri** ditu, ikastola errota bat egon zen lekuan dagoelako.

- **Erro:** sustraiak zaintzen dabiltzalako.
- **Harri:** harria bezain gogor jardun nahi dutelako.
- **Har:** harrera ikastola izan nahi dutelako.



Honako hauek izan ziren, besteak beste, Ibilaldiaren **helburuak**:

- Mundura eta munduko kulturei begirako eguna izatea.
- Izaera herritarra duen eta gizarte-eragileekin lankidetzan burututako jaia izatea.
- Euskaraz bizi den ororentzako jaia izatea.
- Hezkuntza-sisteman ekimen berriak sustatu nahi dituen jaia izatea.
- Administrazioarekin elkarlana bideratuz egingo den jaia izatea.
- Gaztetxo eta nerabeen jarrera parte-hartzailea eta hezitzailea bultzatzeko jaia izatea.

Ikastolen aldeko jaia pasatuta, uztailaren 6an, jaiari buruzko balorazioa egin zuten antolatzaileek. Eguraldia lagun, maiatzaren 29an milaka hurreratu ziren. Balantze ekonomikoa ez zen esperotakoa izan. Jai-eredua aldatu beharrean daudela esan zuten, ez baitzen aurreikusitakoa bete. Hala eta guztiz ere, era honetako jaiak garrantzitsuak direla azpimarratu zuten, euskara eta euskal kultura herrira zabaldu eta hiritarren arteko loturak sendotzeko balio izaten dutelako.

3.7

Euskaraldia 2022

Hirugarrenez ospatu zen Euskaraldia 2022. urtean, eta oraingoan ere Bilboko Udalak ekimen honen aldeko jarrera eta konpromisoa hartu zituen. Euskaraldiak Udaleko bazter guztiak betetzea izan zen helburua, lan-giro lasaian Euskaraldian parte hartzea.

Iker Martinez de Lagosek egin zuen Bilboko Euskaraldia 2022 ekimenari buruzko aurkezpena Aholku Batzordeko kideen aurrean.



2022an, azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean egin zen Euskaraldia. Eta hauxe izan zen leloa: **Hitzez ekiteko garaia**. Horren haritik, helburuetariko bat Ahobizi eta Belarriprest-ei erremintak eskaintzea izan zen. Lorpenak ikusaraztea nahi zuten, eta gonbidapena egin zieten bai batzuei, bai besteei erronka zehatzak jartzeko.

Azken edizioan, ariguneak ere egongo ziren, entitateetan euskaraz lasai hitz egiteko modua jarri zuten gune adostuak. Garrantzi handia eman zieten ariguneei, aurrez adostutako guneak zirelako; eta entitateei eskatu zitzaizen babestu zitzatela espazio horiek.

Bilbon, **bi erronka** nagusi egon ziren:

1. Ikusgarritasuna eta kalea: Bilbo euskara erabiltzeko gune eroso bihurtzea.
2. Euskaltzaleen aktibazioa: Bilbo euskaraz aritzeko hiria izatea eta herri gogoia piztea.

4

Euskararen Aholku Batzordea agintaldi berrian (2023-2027)

Bilboko Euskararen Aholku Batzordean orain arte egindako lanaren berri jaso nahi izan da memoria honetan. Bilboko gizartea eratzen duten arlo guztietan euskarari bultzada eman eta normalizatzeko ahaleginean, Udalaren bidelaguna da Euskararen Aholku Batzordea. Bere ibilbidean, Bilbon euskararen normalizazioaren alde lan egiten duten alderdi politiko eta gizarte- eta kultura-arloko hainbat eragileren eta Udalaren arteko lankidetzarako eta batera jarduteko gune bilakatu da. Bilbok daukan egoera soziolinguistikotik abiatuta, berau hobetzeko ekarpenak egiteko aukera ematen du Batzordeak.

Euskal Autonomia Erkidegoko bizilagunei euskara eta gaztelania ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea aitortzen zaie. Hala ere, aitortutako parekotasun printzipio horrek oztopo askorekin egiten du topo, euskararen kasuan. Hala bada, orain arte moduan, lanean jarraitu beharra dago erabilera sustatuta, euskararen eremua sendotzeko.

Horregatik, Bilboko Euskararen Aholku Batzordeak euskararen normalizazioaren aldeko lanari asmo berrituekin ekingo dio aurrerantzean ere, aro berriari erronka berriekin helduta, hiri euskaldunaren alde eginez.



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO